

ESKATZAILE GUZTIENTZAKO BETEKIZUNAK - PROGRAMA NAGUSIA ETA OSAGARRIA**(Etzerik gabeko pertsonak g, h, i eta j betekizunetatik salbuetsita daude)**

- a)** Adinez nagusia edo emantzipatua izatea.
- b)** Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan benetan, etenik gabe eta laguntza eskatu aurreko urtebetean bizi izana egiaztatzea.
- c)** Ondasun higiezin baten gaineko jabari osoaren edo erabilera- eta gozamen-eskubide baten titularra ez izatea; salbuespen izango da, hala denean, norberaren konturako jarduerak egiten diren higiezina, salbu eta egiaztatzen bada banantze- edo dibortzio-arrazoiengatik ez dagoela halakorik, edo ezin dela bertan bizi bere borondatearekin zerikusirik ez duen eta behar bezala egiaztatuta dagoen beste edozein arrazoiengatik.
- d)** Bizikidetzaren gehieneko ondarea (dirua, tituluak, baloreak, ibilgailuak edo beste propietate batzuk) ezin da **50.000 eurotik** gorakoa izan.
- e)** Eskatzaileek, hala badagokio, edo bizikidetzaren unitateak, oro har, **39.000 eurotik** beherako diru-sarrera gordinak egiaztatu beharko dituzte urtean, babes ofizialeko etxebizitzetako buruzko araudiaren arabera haztatuta. Diru-sarrera horiek zenbatzeko, kontuan hartuko da pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren aitortpena aurkezteko epea amaitu eta eskabidea egin aurreko zergaldia
- f)** Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzea.
- g)** Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako etxebizitza libre baten errentamendu-kontratu baten titularra izatea (Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen arabera formalizatua), norberaren izenean edo errentakide gisa. Horrek 2.2 artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko ditu, eta ohiko egoitza iraunkorra izan beharko du.
- h)** Etxebizitzaren errentatzailearekin edo errentatzailearen bizikidetzaren unitateko edozein kidearekin odolkidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko hirugarren mailara arteko familia-loturarik ez izatea.
- i)** Errentamendu-kontratuak indarrean egon behar du, eta 2020ko martxoaren 14a baino lehen formalizatuta egon behar du. Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, COVID-19 birusak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratu duena, indarrean sartzen den eguna da.
- j)** Alokaturako etxebizitza librearen alokairuen hileko errentak ezin izango dira izan etxebizitza horiek dauden lurralde-eremuari egotz dakiokkeen batez besteko errenta baino 1,5 aldiz handiagoak, 2019ko lehen seihilekoko Alokairu Merkatuaren Estatistikak (EMA) emandako datuen arabera. Familia ugariaren kasuan, hileko errenta ezin izango da 1,75 aldiz handiagoa izan alokatutako etxebizitza dagoen lurralde-eremuari egotz dakiokkeen batez besteko errenta. [Onar daitezkeen gehieneko errenten taula, biztanleria-eremuen arabera](#)

ALOKAIRUAK ORDAINTZEKO LAGUNTZEN ESKATZAILEENTZAKO BETEKIZUN GEHIGARRIAK

- a)** Besteren konturako langileen kasuan, langabezia-egoera 2020ko urtarrilaren 31 baino geroago hasi behar da, eta osasun-larrialdiak eragindako krisian eragin orokorra izan behar du. Ondorio operatiboetarako, hala egin dela ulertuko da aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batean edo beste enplegu-espediente mota batzuetan jasotako kontratu-eteteak direnean, ezinbesteko kausengatik edo, bi kasuetan, COVID-19 birusarekin lotutako ekonomia-, teknika-, antolamendu- eta ekoizpen-arrazoiengatik. Era berean, epea amaitzeagatik kontratuak azkentzen direnean eta aldi baterako kontratuak berritzen ez direnean, Kontratuak aldatu zaien eta lanaldia murrizten zaien langileak, bai lanaldi partzialeko kontratuak aldatzeagatik, bai senideak zaintzeko, bai adingabeak eta/edo adinekoak kontziliatu eta zaintzeko Langabezia- edo azpienplegu-egoera osasun-larrialdiak eragindako krisiaren ondorio dela ulertuko da, baldin eta eskatzaileek beren jarduerak gauzatzen badute martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren arabera jendearentzako irekiera etenda duten jardueren zerrendan sartutako sektoreen batean. Aurreko kasuak aplikagarriak ez direnean, egiaztatu ahal izango da zuzeneko lotura dagoela langabezia- eta/edo azpienplegu-egoeraren eta osasun-larrialdiak eragindako krisiaren artean, zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bidez.
- b)** **Langile autonomoen edo enpresaburuaren** kasuan, diru-sarreraren galera edo salmenten beherakada kalkulatzeko, beherakada horiek gertatu ziren hilabeteetako diru-sarrerak edo salmentak hartuko dira erreferentziatuta (2020ko apirila eta/edo maiatza eta/edo ekaina), alarma-egoera deklaratu aurreko seihileko naturalean erregistratutako batez bestekoarekin alderatuta. Hala ere, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren arabera jendearentzako irekiera etenda duten jardueren zerrendan jasotako sektoreen batean lan egiten duten pertsonen kasuan, kalteberatasun ekonomikoko egoera aurre-suposatzen da, eta ez da beharrezkoa diru-sarreraren galera edo salmenten beherakada hori egiaztatzea.

MAILEGUAK ITZULTZEKO LAGUNTZEN ESKATZAILEENTZAKO BETEKIZUN GEHIGARRIAK

Mailegu bat formalizatuta edukitzea martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 9. artikuluan jasotako finantza-keta-laguntza iragankorrak, mailegu moduan, ematen dituzten banku-entitateen batekin.

BEREZIKI KALTEBERAK DIREN PERTSONENTZAKO BETEKIZUN GEHIGARRIAK

Bereziki zaurgarria dela egiaztatzea.